

ELKARTEAK

Atal honen bitartez, gurekin elkarlanean arituko diren elkarteak finkatuko ditugu.

Hasteko, gure enpresa finantziatzeko hainbat enpresa eta zerbitzuekin kontaktuan jarriko gara. Beraiegandik diru laguntzak jasoko ditugu, horrela ez dugu guk dena ordaindu beharko.

Gogoan izan dugun lehenengo entitatea udaletxea izan da. Guri laguntzeko prest egongo dela pentsatzen dugu, gure zerbitzua herrian aldaketa nabarmen bat sor dezakelako eta proiektu berritzaile bat delako. Hori gutxi balitz, Eusko Jaurlaritzari diru-laguntzak eskatuko dizkiegu.

Bestalde, bi lokal edukitzea erabaki dugu. Bat Urretxun eta bestea Zumarragan egongo dira, Zumarragako herri zentroan, hots, Zelai Ariztin, eta Urretxukoa herriaren kanpoaldean, hain zuzen ere, Mugitegi Industrialdean. Herri zentroan kokatutako lokala, udaletxeari esker eskuratuko dugu. Umeei klaseak emateko ikasgela bezala erabiliko dugu. Herriaren kanpoaldeko lokala berriz, UGGASA-ren bitartez eskuratuko dugu eta gure beharretarako izango da; hala nola, gestioak egiteko, gure zerbitzuaren partaide izango diren pertsonak elkartzeko, behar ez dugun materiala gordetzeko...

Zumarragako lokalean, klaseak emateko ezinbesteko materiala edukiko dugu. Euskara irakasteko nahitaez behar dugun materiala eskuratzeko, hots, mai ezberdinetako ariketa liburuak, irakurgaiak, hiztegiak... "Ikaselkar" elkartearekin kontaktuan jarriko gara adostasun batera iristeko helburuarekin.

Herriatik zehar egongo diren posterrak egiteko, diseinu zerbitzu batekin harremanetan jarriko gara, kasu honetan, "Zuzen" deituriko zerbitzu grafikoa.

Beste alde batetik, Euskal Herriko zenbait unibertsitateekin (Mondragon Unibertsitatea, Bilboko Unibertsitatea eta Deustoko Unibertsitatea) harremanetan egongo gara. Bertan, gizarte integrazio, magisteritza eta hizkuntzak (itzultzaileak, filologia) ikasten ari diren ikasleak beharko ditugu gure proiektua aurrera eraman ahal izateko. Unibertsitate hauen bidez, gure irakasleak lortuko ditugu, izan ere, gure asmoa ikasle horiek praktiken bidez, lan-eremu honetako hainbat gaitasun eta tresna bereganatzeko aukera bikaina iruditzen zaigu. Praktiketara egongo direnez, ez zaie soldata ordaindu beharko, beraz, guretzako ere abantaila bat izango da, ez delako gasturik egongo. Praktiketara 3-5 hilabetez bakarrik egon daitezke, beraz, hiru hilabetero unibertsitatekoekin kontaktuan jarri beharko gara, irakasle berriak lortzeko.

Bestalde, hainbat aliantza sortuko ditugu, esate baterako, gure antzeko zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa eta erakundeekin. Horrela, gure zerbitzuaren ikuspen zabalago bat lortuko dugu. Gure aliantza garrantzitsuena ikastolak izango dira. Ikastoletan gure zerbitzuari buruzko informazioa banatuko dugu, horretarako, irakasleen, zuzendaritzaren, orientazio departametuaren... ezinbesteko laguntza eduki beharko dugu.

Irakasleen eginkizuna euskararekin zailtasunak dituzten haurrei gure lokalera etortzea aholkatzea izango da.

Azkenik, hainbat GKE-kin harremanetan egongo gara, etorkin berrien informazioa eskuratzeko. Esate baterako, herrian kokatzen den "Cáritas"-ekin adibidez.